ABENDU ALDIKO 1. DOMEKEA – A

Sarrerako oharra

Anai-arrebok: gaur hasiko dogu liturgi urte barria. Abendu aldiari ekingo deutsagu, beraz, Eleizak Salbatzailearen jaiotza, Gabonak pozik ospatu aurretik prestaketarako eskaintzen deuskun itxaropenez betetako aldiari. Itxaropenez betetako iragarpena entzungo dogu: Badator Jauna! Biztu daigun argiontzia!

Esnatu egin behar dogu. Jaungoikoak bere Hitza zuzentzen deusku beste behin be, biltzen gaituan zalantzaren eta harrapatzen gaituan bildurraren erdian itxaropenaren esperientzia bizitzeko esanez.

Abestuz ekingo deutsagu Eukaristiari.

Sarrerako abestia

Abadearen agurra

Gu salbatzera datorren Jauna, zuekin.

Koroaren zeinua eta damu otoitza

Abendu aldiaren hasieran, gure itxaropena biztu egiten da. Jesusi begiratuz, hainbeste dogu aldatzeko!... Jaunak bakarrik emoten deusku gaitasuna egiteko hori garatzeko eta, horregaitik, bizkor etorri daitela eskatzen dogu. Zeinu lez, lehenengo kandela biztuko dogu. Hori eginez, gugaz bizitzen jarri gura izan dauan Jaungoikoaganako itxaropena suspertu egin gura dogu.

Lehenengo kandela biztu. Ondoren, esan:

— Jesus Jauna, mundura gu salbatzera etorria: Erruki, Jauna.

— Jesus Jauna, ikustaldia egiten deuskuzuna: Kristo, erruki.

— Jesus Jauna, zure Espirituaz beteten gaituzuna: Erruki, Jauna.

Oharra irakurgaiei

Lehenengo irakurgaian, Isaias profetak, krisialdi batean, Jaungoikoaren jarduera agertzera emoten dau Israel herriaren historian. Jerusalem, benetako jakituria, zuzentasun eta bakearen uri lez ikusten dau.

Profetak, bakarrik Jaungoikoagandik datorren salbamena itxaroten dau. Horregaitik, Jaunaren argitan ibilteko dinotso herriari.

Bigarren irakurgaian, sinisten hasi ziraneko eguna gogoratzen deutse Paulok erromatarrei. Hortik, duintasunez, argiaren egintzen arabera jokatzeko eskatzen deutse.

Fedea ez dalako behin betiko jadesten dan zerbait; ezinbestekoa da fedean eten barik haztea.

Jaungoikoaren herriaren otoitza

Gizadiaren poz eta itxaropenak, tristura, larritasun eta nahiak geure eginez, Jaungoikoari aurkeztuko deutsaguz, uste osoz egindako otoitzean.

1. Eleizaren alde. Gure munduan itxaropenaren zeinu izanda, etorri datorren Jauna iragarri daian. Eskatu deiogun Jaunari.

2. Agintarien alde. Bakea eta zuzentasuna dakarren politikak garatu daiezan. Eskatu deiogun Jaunari.

3. Bakearen alde. Herri batek be ez deion ezpatarik altxatu beste herri bati. Eskatu deiogun Jaunari.

4. Gu guztion alde. Jaungoikoaren arrastoei adi egonez, etsipenez bizi diranen erdian bizi gaitezan adore emoteko. Eskatu deiogun Jaunari.

Zure Semea mundura bialdu zenduan Jaungoiko errukitsua; entzun gure otoitza eta biztu gugan Haren etorrerarako irrika. Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abadearen agurra (bedeinkapenaren ostean)

Bihotzez itxaroten dogun Norbaiten jaiotzarako prestatzen dihardugu. Horretarako, esna, erne egon behar dogu, gure bizitzan eta gure bihotzean lekua egin ahal izateko.

Zoaze Jaunaren bakean!

Egun honetarako gogoeta

Liturgia urte barria hasten dugu gaur. Aldi berezia da kristau alkarteentzat: hurrengo asateetan, Jaunaren maitasunaren historia, “salbamen historia” bizitzeko, ospatzeko eta suspertzeko prestatuko gara. Horixe da, hain zuzen, kristau alkarteak liturgian ospatzen dauana. Oinarrizko ideia hau ahaztu edo baztertu egiten badogu, gure ospakizuna aspergarria izango da.

Jaunaren maitasun historia horretan, oinarrizko momentua, Norbaiten presentzia da; desiratua eta itxarona izan dan Norbaiten jaiotza da. Bila dabilen, bizitzaren zentzunaren bila, historiaren zentzunaren bila, heriotzaren zentzunaren bila, estu eta larri dabilen gizakiari, itxaropena emongo deutson Norbait. Horregatik, Abendu aldia, itxaropenaren aldia dogu; Jaunaren bideak prestatzen joateko aldia. Harengana zabaltzeko eta onartzeko prestatuz bakarrik ezagutuko dogu. Hauxe da Gabonak ospatzea; Jesus gure artean egote hori, itxaropen gisa eta salbamen gisa bizitzea. Hauxe da gaur hasten dogun aldia.

Abenduko lehen domekako deia hauxe dogu: *“zagoze beti erne”* (Ebanjelioa). Beharrezkoa da: *“datorren Jaunagan”* dogun sinesmenak eta itxaropenak bakarrik beteko dabe zentzunez abendu aldia. Gure itxaropena Jesus da.